



## AKTEA/29

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**  
**(2024-10-01)**

<b>Batzarraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2024-10-01 (Asteartea)
<b>Lekua:</b>	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
<b>Hasiera-ordua:</b>	08:12
<b>Amaiera-ordua:</b>	08:27
<b>Alkate-Presidentea:</b>	NEMEH SHOMALY NADIA
<b>Batzordekideak:</b>	URIARTE ANASAGASTI VICTOR ORMAZA TARANTINO ARANTZA ORTUZAR BUTRON XABIER CARUEZO UGALDE MAITE
<b>Bertaratu ez direnak:</b>	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE
<b>Idazkaria:</b>	URIARTE LEJARRAGA JURDANA

Sinadurea eta data

## Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2024-09-24 TGB (28)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- 21.2. esku-hartze eremuko 7 eta 10 partzeletan 16 etxebizitza, garaje kolektibo eta trastelekuak eraikitzeko obra lizentzia eskaria onartzea.
- 4.- Galdakao LHII ikastetxearen eta Bermeoko Udalaren arteko hezkuntza-lankidetz hitzarmena sinatzea onartzea.
- 5.- Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzen 2023. urteko banaketa onartzea.
- 6.- 114/2024 epaiaz berri ematea.
- 7.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 8.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaizta honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2024-09-24 TGB (28)

Bertaratutako batzarkideek 2024ko irailaren 24ko 28/2024 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERREDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
01/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 02/10/2024

DOCUMENTO: 20241107267

Datea: 02/10/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5



### 3.- 21.2. ESKU-HARTZE EREMUKO 7 ETA 10 PARTZELETAN 16 ETXEBIZITZA, GARAJE KOLEKTIBO ETA TRASTELEKUAK ERAIKITZEKO OBRA LIZENTZIA ESKARIA ONARTZEA.

#### Xedea

21.2 areako 7. eta 10. partzeletan 16 etxebizitza, garaje kolektibo eta trastelekuak eraikitzeke obra baimena.

#### Aurrekariak

Lehenengoa.- 2021eko abenduaren 17an, 51.378.955-Z NAN zenbakidunak, Daphne Activos Inmobiliarios S.L.U enpresaren izenean obra baimena eskatu zuen 21.2 areako 7. eta 10. partzeletan 16 etxebizitza, garaje kolektibo eta trastelekuak eraikitzeke. Horretarako, DGA eta Pedro Apaolaza arquitectura y urbanismo taldeek garatutako proiektu basikoa aurkeztu zuen.

Proiektu basikoa zegokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe aurkeztu zen, hala ere, Hondakinak Kudeatzeko Azterlana bertan zegoen.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua 2.071.294,46 eurokoa izango zen.

Bigarrena.- 2022ko apirilaren 29an, udal arkitektoak txostena egin zuen. Bertan, proiektuan zuzenketa batzuk egitea eskatzen zen.

Hirugarrena.- 2022ko uztailaren 28an, 51.378.955-Z NAN zenbakidunak, Daphne Activos Inmobiliarios S.L.U. enpresaren izenean, aurkeztu zuen dokumentu bat non eskatutako azalpenak eta zuzenketa azaltzen ziren.

Laugarrena.- 2022ko azaroaren 28an, 51.378.955-Z NAN zenbakidunak, Daphne Activos Inmobiliarios S.L.U. enpresaren izenean, idazkia aurkeztu zuen hirigintza-kontsulta egiteko. Kontsulta horretan eskatzen zen sotoei buruzko azalpena.

Bosgarrena.- 2023ko urtarrilaren 2an, 51.378.955-Z NAN zenbakidunak, Daphne Activos Inmobiliarios S.L.U. enpresaren izenean, proiektu basiko aldatua aurkeztu zuen, apirilaren 29ko udal-txosten teknikoari erantzunez.

Proiektu basiko aldatua zegokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe aurkeztu zen, hala ere, Hondakinak Kudeatzeko Azterlana bertan zegoen.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, obraren exekuzio materialaren behin-behineko

3



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
01/10/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 02/10/2024

DOCUMENTO: 20241107267

Fecha: 02/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5



kostua 2.083.041,22 eurokoa izango zen (2.030.243,18 euro kalitate-kontrola, segurtasun eta osasun partidak kenduta).

Seigarrena.- 2023ko maiatzaren 16an, udal arkitektoak txostena egin zuen hirigintza-kontsulta argituz.

Zazpigarrena.- 2024ko apirilaren 23an Bermeoko udal arkitektoak txostena egin zuen.

Zortzigarrena.- 2024ko apirilaren 25ean Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Bederatzigarrena.- 2024ko apirilaren 25ean Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak erabaki proposamena igorri zuen.

### Argudioak

Lehenengoa.- Bai txosten teknikoan bai txosten juridikoan azaltzen den bezala, 51.378.955-Z NAN zenbakidunak, B88554167 IFZ. zenbakidun Daphne Activos Inmobiliarios S.L.U enpresaren izenean eskaria bat dator hirigintza araudiarekin.

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazio indarrean dagoen araudiarekin bat dator.

Bigarrena.- Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki administrazioen Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena Alkatearena da, baina eskumen 2024ko apirilaren 24ko 1886. Zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 51.378.955-Z NAN zenbakidunak, B88554167 I.F.Z. zenbakidun Daphne Activos Inmobiliarios S.L.U enpresaren izenean obra baimena ematea 21.2 areako 7 eta 10 partzeletan 16 etxebizitza, garaje kolektibo eta trastelekuak eraikitzeko proiektu basikoaren arabera.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20241107267
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 01/10/2024 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 02/10/2024		Datea: 02/10/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unidaidea: Erregistro nagusia



**BIGARRENA:** Lizentziaren eraginkortasuna baldintza honek betetzera baldintzatuko da:

- Aparkalekuaren jarduera-proiektua exekuzio proiektuarekin batera aurkeztu beharko da.
  - Eraikinean etxebizitzei lotu gabeko aparkaleku plazarik egongo balitz, beharrezkoa izango litzateke kanpoaldetik zuzenean sartu ahal izateko aparteko oinezkoentzako sarbide irisgarria.
  - Eraikuntzaren Kode Teknikoak bere DB-HS2 oinarritzko dokumentuan zehazten duen erreserba espaziotik kalera iristeko ibilbidean dauden atea irteerako noranzkoan ireki behar dira.
  - Aparkaleku egokituari lotutako trastelekuaren atea aniztasun funtzionala duten pertsonentzat egokituta izango da.
  - Bermeoko HAPOaren 4.1.18 artikuluan zehazten den bezala, esekilekuak gutxienez, 3 m<sup>2</sup> izango ditu.
  - Kanpoko sarbideak egokitu behar dira, ezkaratzeko ateen 1,50 metroko espazio libre horizontala izan behar dutelako atearen bi aldeetan. Espazio hori ezin dute atearen orriek hartu (68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, III. Eranskineko 4.1.1 artikulua 1. paragrafoa). Zuzendu beharko da exekuzio proiektuan.
  - 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispentxandakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ondoren, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den adieraziko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.
- Hala nola, eraikuntza- eta eraispentxandakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza 14.273,58 € koa izango da.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren

5



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatuta ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5

## Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
01/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 02/10/2024

DOCUMENTO: 20241107267

Data: 02/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5



kontura izango da.

- Urbanizazioan sor daitezkeen kalteak direla eta, lanak hasi aurretik 40.604,86 €-ko bermea jarri beharko da (gauzatze materialaren aurrekontuaren %2). Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.
- Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.
- Lanak hasi aurretik dagokion elkargoak ikus-onetsitako exekuzio proiektua aurkeztu beharko da Bermeoko Udalean.
- Obra baimena 2023ko urtarrilaren 2an aurkeztutako proiektu basikoan oinarritzen da. Proiektuaren aldaketarik balego, udalari aldaketa horien egokitasuna zuzena den ala ez adieraztea eskatu beharko zaio. Hala egin ezean, obra baimenera egokitzen ez diren lanak ezkutuko jarduketatzat hartuko dira.
- Etxebizitza eraikin berriak definitzen dituen proiektuak Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko eraikuntza ordenantzen xedapenak errespetatu beharko ditu.
- Etxebizitza eraikin berriak definitzen duen proiektuak eta garaje jarduerari dagokion dokumentazioak AI.21.2 areako 7, 10, 13, 14, 15, 16 eta 17 partzelak xehatuki antolatzen dituen Plan Berezia errespetatu beharko dute.
- Eraikinaren solairu bakoitzaren kota Plan Bereziak ezarritako kotara egokitu beharko da.
- Plan Bereziak ezarritako lerrokadurak errespetatu beharko dira.
- Plan Bereziak ezarritako eraikigarritasuna ezin izango da gainditu. Gehienezko eraikigarritasuna 7. partzelari dagokionez 865,00 m<sup>2</sup>-koa izango da eta 10. partzelari dagokionez 1.210,00 m<sup>2</sup>-koa.
- Bermeoko HAPOak bere 3.2.5 artikuluan zehazten du etxebizitzek gutxienez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuaren 2009ko otsailaren 12ko agindua bete beharko dutela, Babes Ofizialeko Etxebizitzen diseinurako ordenantzak onartzen dituen.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
01/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 02/10/2024

DOCUMENTO: 20241107267

Fecha: 02/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5



- Bermeoko HAPOaren ordenantzetako 4.1.9 artikulura egokituko da, fatxada bakoitzean hegalkinek ezin izango dute fatxadaren luzeraren %60 baino gehiago okupatu; begiratokien kasuan, itxitura kristalezkoa izango da gutxienez fatxadaren %60an.
- Eraikuntza lanetan aldamua, edota garabia jartzea beharrezkoa balitz, aurretik udalari baimena eskatuko zaio, dagokion dokumentazioa aurkeztuz.
- EKTari dagokionez, martxoaren 17ko 314/2006 dekretua bete beharko da.
- Irisgarritasunari dagokionez, EKTk eta 68/2000 Dekretuak jasotzen dutena bete beharko da.
- Kontainerra behar izanez gero, bide publikoaren okupaziorako lizentzia eskatuko da eta Udaltzainekin adostu beharko da kontainerraren kokapena.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxienerako xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.
- Obrek dirauten bitartean, ondoko kaleak zikintzea saihestuko da, batez ere obrako kamioientzako sarrera eta irteera.

**HIRUGARRENA:** Instalazio obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira:

- Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.
- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraipen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txostena aurkeztu beharko du



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
01/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 02/10/2024

DOCUMENTO: 20241107267

Fecha: 02/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidea:  
Erregistro nagusia



eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori 112/2012 Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraituz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

3.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da edo, azpiegiturailan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraituz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitortpena.

- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena, Industria ordezkariak abalatuak.
- Eraikinaren alta aitortpena hiri ondasunak zergapetzeko.
- Obra berriaren aitortpena.
- Obra amaierako dokumentazioa, memoria, likidazioa eta planoak barne.
- ITC proiektua industria ordezkariaren aurkeztu izanaren ziurtagiria.
- Igogailuen mantenu kontratua.
- Igogailuak abiaraztearen ziurtagiria.
- Aireztapen sistema abiaraztearen ziurtagiria.
- Berokuntza eta ur bero sanitarioko sistema martxan jartzeko ziurtagiria.
- Kalitate kontrolaren dokumentazioa.
- Udal kartografia eguneratzeko planoak digitalki aurkeztua.



**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
01/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 02/10/2024

DOCUMENTO: 20241107267

Fecha: 02/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia





**LAUGARRENA:** Egin beharreko obrak lizentziaren bidez baimendutakoak baino ez dira izango. Baimendutako obretan egin nahi den aldaketa oro udalari jakinarazi beharko zaio, eta beste lizentzia bat eskatu beharko da. Obrak gainditzeak edo lizentzia baldintzak ez betetzeak obrak geldiaraztea eta dagozkien administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko du.

**BOSGARRENA:** Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da, udal zerbitzu teknikoen eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenatarako eta egiaztapenatarako sarbidea eman beharko zaie, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

**SEIGARRENA:** Obraren aurrekontua 2.030.243,18 €koa da (kalitate-kontrol eta segurtasun eta osasun partidak kenduta). Obrak gehienez ere sei hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere hiru hilabetez eten ahalko dira. Ohartarazten da ebazpen honetan adierazten diren fidantzak gordailatu aurretik ezin izango dela obrekin hasi. Era berean, obrak egiteko epea hogeita hilabetekoa izango da, eta ohartarazten da adierazitako epeak obra hasi, jarraitu edo amaitu barik badaude, hurrenez hurren, udalak lizentzia iraungitzeko espedientea hasiko duela, interesdunak aipatutako obra egiteko luzapena eskatzen ez badu behintzat.


**ZAZPIGARRENA:** Obrak egiten diren bitartean, legez eskatu daitezkeen segurtasun neurri guztiak hartuko dira, obretatik hurbil dauden pertsonen kalterik ez egiteko.

**ZORTZIGARRENA:** Lizentziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitezkeen kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

**BEDERATZIGARRENA:** Obretako hesi, aldamiu eta gainerako elementu osagarriekin eremu publikoa okupatzen bada, dagokion eskaera aurkeztu beharko da udalean.

**HAMARGARRENA:** Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun eskusibopean.

**HAMAIKAGARRENA:** Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
01/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 02/10/2024

DOCUMENTO: 20241107267

Fecha: 02/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



egoera juridiko pribatuak.

HAMABIGARRENA: Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributua likidatzeko.

HAMAHIRUGARRENA: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsioak adieraziz.

#### **4.- GALDAKAO LHII IKASTETXEAREN ETA BERMEOKO UDALAREN ARTEKO HEZKUNTZA-LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.**

##### **Xedea**

Galdakao LHII ikastetxearen eta Bermeoko Udalaren arteko hezkuntza-lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

##### **Aurrekariak**

Bakarra: Lankidetzaren hitzarmen honen bidez ikasleei praktikak egiteko aukera ematen zaie eta Bermeoko Udalak, ahal duen heinean, horrelako praktikak egiteko aukera ematea interesgarri ikusten du, formakuntza egokia lortzeko beharrezkoa baita.

##### **Argudioak**

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen du bere 5. artikuluan:

“Para el cumplimiento de sus fines y en el ámbito de sus respectivas competencias, las Entidades Locales, de acuerdo con la Constitución y las leyes, tendrán plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, celebrar contratos, establecer y explotar obras o servicios públicos, obligarse, interponer recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes”.


Bigarrena: Eskumenen gainean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. artikuluan, honakoa dio:

“1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: (...)

1. Babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzea eta kudeatzea.
2. Espazio publikoetan bizikidetzaren harremanak antolatzea eta kudeatzea.



3. Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.
4. Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.
5. Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
6. Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa antolatzea eta kudeatzea.
7. Etxebizitzen plangintza, programazioa eta kudeaketa.
8. Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.
9. Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.
10. Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.
11. Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea.
12. Hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa, baita osasun arloko kontrola ere.
13. Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
14. Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.
15. Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea hiri-erabilerako uraren ziklo integrarean. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-hornidura; uraren behe-hornidura; saneamendua edo biztanle-guneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa, eta hiriko hondakin-uren arazketa.
16. Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.
17. Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea.
18. Bidaiarien hiri barruko garraio publikoa garraibidea edozein dela antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
01/10/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 02/10/2024

DOCUMENTO: 20241107267

Fecha: 02/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5



- horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerraren barruan egiten bada osorik.
19. Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.
  20. Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
  21. Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.
  22. Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea.
  23. Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatzeko-aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen.
  24. Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
  25. Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.
  26. Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera.
  27. Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.
  28. Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat.
  29. Hondartza, laku eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea, arlo horretan lurralde historikoek dituzten eskumenak eragotzi gabe. Hondartzetarako sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea.
  30. Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, prozesuen arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean.
  31. Udalerrarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 01/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 02/10/2024

DOCUMENTO: 20241107267

Fecha: 02/10/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5



32. Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu motordun zein bestelako eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziiplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko irizitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.
33. Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
34. Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaaren arazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostearen erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena.
35. Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerriartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrira eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.
36. Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.
37. Garapenerako lankidetzan alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.”

Hirugarrena: Aitatutako justifikatze memoriaren arabera, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legean hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira, baina ez da jasotzen hitzarmenean zehazten den jarduna udalaren zein ahalmenetan oinarritzen den, ez dira zehazten ez betetzeen ondorioak ezta hitzarmenaren jarraipena egiteko modua, 40/2015 Legearen 49. artikuluko b) e) eta f) atalek adierazi bezala:

“b) Administrazio publikoaren, bere erakunde publikoen eta lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduerarako oinarri den eskumena.

e) Aldeetako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak urratuz gero aplikatu beharreko ondorioak, eta urratuz gero egon daitekeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.

f) Hitzarmena betearaztearen eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoen jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak.”



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 01/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 02/10/2024

DOCUMENTO: 20241107267

Fecha: 02/10/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5



Laugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikuluan jasotakoaren arabera, hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari dagokio, ez dagoelako beste organo bateri emanda, baina 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta. Onarpen hau hitzarmena sinatu aurretik egin behar da.

### **Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: A.T.S. jaunaren, 79.078.006-G NAN zenbakiduna, eskaria onartzea.

BIGARRENA: Galdakao LHII ikastetxearen eta Bermeoko Udalaren arteko hezkuntza-lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartzea.

HIRUGARRENA: Interesdunari erabakia jakinaraztea.

## **5.- BERMEOKO KIROL TALDEEN JARDUERA ARRUNTA FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZEN 2023. URTEKO BANAKETA ONARTZEA.**

### **Xedea**

Xixili taldeak aurkeztutako berraztertze errekurtsioa eta gero Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzen 2023. urteko banaketa onartzea.


### **Aurrekariak**

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an Udal Osoko Bilkurak, 2023-2025 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Bigarrena: Diru-laguntzen Plan Estrategiko horretan oinarrituta, Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko oinarri espezifikoak prestatu ziren.

Hirugarrena: 2023ko irailaren 28an Osoko Bilkurak, 2023. urteko Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru laguntzaren oinarri espezifikoak onartu zituen.

Laugarrena: 2023ko urriaren 10ean Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko diru-



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5

#### **Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 01/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 02/10/2024

DOCUMENTO: 20241107267

Fecha: 02/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



laguntzen deialdia onartu zuen eta 2023ko urriaren 25ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bosgarrena: Epe barruan hiru kirol talde aurkeztu zuten euren diru-laguntza eskaria: Xixili Gimnastika taldeak, Biara taldeak eta Urdaibai eskubaloit taldeak, hain zuzen ere.

Seigarrena: Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzen 2023. urteko banaketa 2023/5370 Alkatetza Dekretuz onartu zen.

Zazpigarrena: Xixili Gimnasia taldeak berraztertze errekurtoa (2024/624 erregistro zenbakia) aurkeztu zuen 2023/5370 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren aurka.

Zortzigarrena: Errekurtsoa partzialki onartu zen, beherago jasotzen den bezala:

... "LEHENENGOA: [REDACTED] andreak, Xixili Gimnasia taldearen izenean eta ordezkartzan aurkeztutako Berraztertze Errekurtsoa partzialki onartzea, eta erabakiaren deuseztasuna aldarrikatzea, prozedura ez betetzeagatik, aurkeztu beharreko dokumentazio gehigarria eskatzeko orduan, errekerimendua ez delako egin.

BIGARRENA: Banatu gabe geratu den diru kopurua emateko eskaria ezestea, diru-laguntzen banaketa, oinarrietan araututako moduan egin behar delako, oinarri horiek lege baitira.

HIRUGARRENA: Errekurtsoa partzialki onartzearen ondorioz, prozeduraren atzera egitea onartzea, akatsa egin zen unera arte. Hori horrela, Xixili taldeari errekerimendua bideratuko zaio, 10 eguneko epea emanaz dokumentazioa bere osotasunean aurkezteko.

LAUGARRENA: Beste kirol taldeen artean egindako diru-laguntza banaketa bertan behera uztea. Banaketa berriaren inguruko erabakia hartzen danean, erabakiaren ondorioz eman beharreko urratsak (dirua itzuli, zenbatekoa,..) jakinaraztea."

Bederatzigarrena: 2024/3/6ko datan gabeziak zuzentzeko errekerimendua egin zitzaion Xixili taldeari.

Hamargarrena: Kirol Saileko zuzendariak, instruktorea dela eta irizpideen taula jarraituz, diru-laguntza baldintza zehatzen fitxetan oinarrituta, diru-laguntza kopuruen



taula osatu zuen.

Hamaikagarrena: 2024ko apirilaren 16an diru-laguntzen balorazio batzordea batu zen, eta txosten teknikoak aztertu ondoren irizpideen taula onartu zuen berariazko oinarriak jarraituz.

Hamabigarrena: Kontu-hartzaileak bere desadostasuna adierazten dau Xixili taldeari diru-laguntza jaso aurretik, aukera ematen zaiolako Kirol Sailarekin duen zorra kitatzeko.

## Argudioak

Lehenengoa: Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra

Bigarrena: Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Lege Orokorra garatzen duen Erregelamendua onetsi ebana.

Hirugarrena: Urdaibai Eskubaloi taldeak 143 puntu lortu ditu. Diru-sarreraren eta gasturen arteko aldea 6.937,51 eurokoa da. Taldeak behar bezala justifikatzeko eskatutako agiriak aurkeztu ditu.

Urdaibai taldeak 5.000 euroko diru-laguntza jaso zuen berraztertze errekurtsoa aurkeztu aurretik, eta behin eta balorazioa berriro egin, kopuru bera dagokio, hortaz ez dauka eraginik.

Laugarrena: Biara taldeak 56 puntu lortu ditu. Diru-sarreraren eta gastuen arteko aldea 3.543,62 eurokoa da, beraz, kopuru hori da gehienez dagokiona. Taldeak behar bezala justifikatzeko eskatutako agiriak aurkeztu ditu.

Biara taldeak 3.062,5 euroko diru-laguntza jaso zuen berraztertze errekurtsoa aurkeztu aurretik, eta behin eta balorazioa berriro egin, jaso beharreko kopurua, 2.782,64 eurokoa da, hortaz 279,86 € itzuli beharko ditu.

Bosgarrena: Xixili taldeak 43 puntu lortu ditu. Diru-sarreraren eta gastuen arteko aldea 2.050,82 eurokoa da, beraz, kopuru hori da gehienez dagokiona. Taldeak behar bezala justifikatzeko eskatutako agiriak aurkeztu ditu. Taldeak aurkeztutako dokumentazioan, entrenatzaile bi agertzen dira 2022-2023ko denboraldiko kuotak ordaintzeko dutenak. Diru-laguntza jaso aurretik ordainketa eginda egon beharko da.

Seigarrena: Gastuak beharrezko kontsignazioa dauka RC 2024/000418.

Zazpigarrena: Xixili taldeari errekerimendua egin eta gero, Kirol Sailarekin zituen





zorrak kitatu ditu.

Zortzigarrena: Diru-laguntza onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimenaren Oinarriak onartzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua araberan, alkateari dagokio baina 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretuz, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatzea onartu zan.

### **Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzen partida horrela banatzea:

- Biara taldea: 2.782,64 € (ordainketa eginda dago, 279,86 € itzuli behar ditu)
- Urdaibai eskubaloi taldea: 5.000 € (ordainketa eginda dago)
- Xixili G.T.: 2.050,82 € (ordainketa egiteke).

BIGARRENA: Euskerearen ordenantzak xedatzen dauzan kultura, kirol, aisialdi alkarte, musika talde eta bestelakoei diru-laguntzak emoteko baldintzak bete behar dauz diru-laguntzearen jasotzaileak.

HIRUGARRENA: Erabagia interesdunei, Kontabilidade, Diruzaintza eta Ekonomia sailei jakinaraztea.

LAUGARRENA: Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean erabagia argitaratzea.

BOSGARRENA: Interesatuak jakinaraztea.

SEIGARRENA: Osoko Bilkureari erabagiaren barri emotea.

### **6.- 114/2024 EPAIAZ BERRI EMATEA.**

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 114/2024 Epaiaren berri eman zaio, eta honela dio:

*“FALLO: Que desestimando íntegramente el presente recurso contencioso-administrativo interpuesto por la representación procesal de [REDACTED] frente a la desestimación presunta por silencio administrativo de la Reclamación por Responsabilidad Patrimonial formulada en fecha ocho de febrero del año 2022, debo declarar y declaro la conformidad a Derecho del acto administrativo recurrido.*



*Sin costas.*

*Esta sentencia es firme y frente a ella no cabe interponer recurso alguno.”*

## 7.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.


## 8.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orrri oinean sinatzaileak eta datak*

	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E80010E54300Y5V6T4R0F4F5</p>	<p style="text-align: center;"><b>Sinadurea eta data</b></p> <p style="text-align: center;">JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 01/10/2024 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 02/10/2024</p>	<p>DOCUMENTO: 20241107267</p> <p>Datea: 02/10/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unidaada: Erregistro nagusia</p>
--	--	---	---

